

# Auzoen Mahaia.

## Eremuetako 1. bilera.

### Alde Zaharra.

Tolosako Udala.

#### 1. Laburrean

##### 1. Oinarrizko informazioa.

**Data:** maiatzak 07

**Ordutegia:** 18:00etatik 20:00etara.

**Tokia:** Tolosako udala

##### Parte-hartzaileak:

###### - Tolosako Udala:

- o Andu Martinez de Rituerto, alkatea
- o Josune Sanz, Erkidego eta Gobernantzako zinegotzia.
- o Garikoitz Lekuona, Komunitatea eta Gobernantzako arduradun teknikoa.
- o Lide Olalde, Komunitatea eta Gobernantzako dinamizatzailea.

- **Laguntza-taldea:** Nommad kooperatibako Axel Moreno.

- **Inguruko auzoetako bizilagunak:** 3 bizilagun, 2 gizonezko eta emakume 1.

##### 2. Saioaren helburua:

- Inguruko bizilagunak elkartzeko gune bat sortzea, eta prozesuaren fase hori abian jartzea.
- AuzoEkinen prozesua azaltzea, eta Auzoen Mahaiari aplikatzea.
- Auzoen Mahaiak auzo bakoitzerako ezarritako neurrien aurrerapenak partekatzea eta eztabaidatzea.
- Auzoen eskaera berriei erantzuna (partziala) ematea.
- Auzoen Mahaitik AuzoEkinerako trantsizioa egiteko hurrengo urratsak aurkeztea.

#### 2. Saioaren laburpena

##### 1. Sarrera.

- Josunek ongiatorria egin die bertaratuei, eskerrak eman dizkie eta sarrera instituzionala egin du. Ondoren, jardunaldia prozesuan kokatzeko azalpena (nondik datorren, gaur egun non dagoen) izan da.
- Prozesuaren, jardunaldiaren eta dinamikaren aurkezpena, Nommad kooperatibako Axel Morenok eginga.

##### 2. Elkar ezagutzen.

- Auzo elkarteko 3 kide

##### 3. AuzoEkin eta Auzoetako Mahaiaren aurkezpena.

Komunitatea eta Gobernantzako arduradun tekniko Garikoitz Lekuonak honako gai hauen berri eman du:

- AuzoEkinen eta Auzoetako Mahaiaren aldi bereko prozesuaren aurkezpena.
- AuzoEkinerako trantsizioa egiteko urratsak.

#### 4. Auzoetako Mahaiko neurrien aurrerapen-maila.

Anderrek gaiei lotuta azken hilabeteetan hartutako neurrien aurrerapenak azaldu ditu eta bizilagunekin aztertu dira:

- **Ikasgela.**
  - Martxan dago. Astelehenetik ostiralera 08:00etatik 21:00etara.
  - Profila: 25 urtetik gorakoak oraingo. Jada 43 pertsonak eman dute izena.
  - Liburutegiko lanpostuak betetzeko zailtasunak daude.
- **Alde Zaharreko trafikoa kontrolatzeko kamerak:**
  - Udaltzaingoarekin eta informatikariekin ari dira lanean modeloak aukeratzeko. Laster martxan egotea aurreikusten da.
  - Auzotarrekin adostu nahi dira ordutegiak eta baldintzak. Proposatuta zaie auzotarren artean gai hau lantzen hastea.
  - Kamera-sistema automatikoa da, matrikulak irakurtzen ditu eta adostutako baldintzak betetzen ez dituztenei isuna iritsiko zaie.
- **Gune berdeak**
  - Alde Zaharrak duen egituragatik (kale estuak), momentuz, loreontzi batzuk jarriko dira. Gainera, kale batzuetan, kotxeen abiadura moteltzeko erabiliko dira loreontziak.
  - Egia da auzoa berdetzeko nahiko eskasa dela planteamendua. Auzotar batek fatxadetan landareak edo loreontziak jartzea proposatu du, Europako beste hiri batzuk eredu hartuta.
  - Aukera gehiena Rondilla kalean ikusten da. Epe luzera begira egiteko proiektutzat dute.
- **Plan integrala**
  - Diagnostikoa bukatzeko detaile batzuk geratzen dira.
  - Plangintza eta lehentasunak markatzea dira hurrengo pausoak. Lizitazioa prestatzen ari dira: plegu teknikoak prest daude, plegu administratiboak falta dira.
  - Fase honetarako bi lantalde proposatzen dira: koordinazio taldea (gobernu taldea, teknikariak eta auzoko ordezkariak, eskatu bezala), barne mailan sailen arteko taldea, mahai politikoa eta talde eragilea (auzotarrak, eragileak, komertzioak... definitzeko).
  - Lizitazioa martxan jartzeko 2 hilabete aurreikusten dituzte. Asko luzatu da, hirigintzako egoera ez baitzen egokiena. Orain, berriro ere martxa hartzen ari dela dirudi eta urgentziazko prozedura gisa lantzen ari dira.
  - Bizilagunek aipatu dute auzotarrak haserre daudela atzerapenarekin. Giroa lasaitzeko dataren bat itxita edukitzeak asko lagunduko duela esan dute. Lizitazioa publikatu arte itxarongo da epe eta data zehatzak esateko.
- **Dirulaguntzak**
  - Aste honetan publikatu dira. Berrikuntza: obra txikientzako dirulaguntzak daude.
  - Abuztuaren 20tik irailaren 20ra bitarte eskatu daitezke dirulaguntza hauek. 2024ko urriaren 16tik 2025eko irailaren 11ra bitartean egindako obrak lagunduko dira.
  - Asmoa da horrela jarraitzea hurrengo urteetan.
  - Auzotarrei komentatu zaie haiek egingo duten hurrengo bilan interesgarria izango litzatekeela kontu hau aipatzea.
- **EIOZ (ICIO)**
  - Alde zaharreko obrak interes publikokoak deklaratu dira, eta ordenantzan egindako aldaketari esker, Alde Zaharreko obren gaineko

zergari aplikatuko zaion hobaria handituko da, %95era arte, eraberritze obrak sustatzeko.

- **Aparkalekuak**
  - Egoeraren diagnostia egin da, eta etorkizunerako aukera posibleak aztertu dira. Tolosan dugun orografia eta bizitegi dentsitatea dela eta oso aukera gutxi daude. Aurrerago komunikatuko dira aukerak.
- **Zubiko obra**
  - Zubiko obra eta Zumarditxikiko obra ez doaz batera.
- **Zamalanak**
  - Auzotar batek proposatu du ea aukerarik egongo litzatekeen zamalanetarako kotxeak Alde Zaharreko eremu bakarrean pilotzeko. Adibide gisa, Donostiako Alde Zaharra jarri du.
  - Ibilgailu horiek sortzen duten mugimendua lasaitze aldera, bizilagunak proposatu du Euskal Herria plaza eta Andre Maria kalea, goizetan, zamalanetarako gunetzat.
  - Eremuak erabakitzeko Alde Zaharreko merkatariekin ere hitz egin beharko litzatekeela aipatu du.
- **TAO**
  - Galdetu dute ea aldaketaren bat etorriko den.
  - Udalak mahaigainean du lizitazio berrian aldaketak egitea, oraindik zehaztu gabe daudenak.
  - Zumarditxikiko makina eta seinaleak ere aldatzeko eskatu dute.
- **Pintadak**
  - Auzotarrek eskaria egin behar dute pintadak garbitzeko. Ondoren, Udalak ikusiko du egingarria den edo ez.
  - 46 jakinarazpen jaso dira, baina 15 baimen bakarrik eman dira. Arrazoia: jakinarazpen horiei erantzun-falta.
- **Bizikletentzako aparkalekua**
  - Edozein lekutan aparkatzen dira bizikletak.
  - Aparkalekuak badaude, baina leku estrategikoetan gehiago jarri behar direla uste dute.
  - Lokalen bat hartzea proposatu dute. Bila dabilta, baina ez da erraza izaten ari. Turismo-bulegoaren atzean dagoen eremua erabiltzea proposatu du bizilagun batek.
  - Iruñeko bizikletentzako dauden lokalak eredu jarri dituzte.
  - Dagoen lokaleko ateak gaizki programatua daramatza 6 hilabete. Konpontzea urgentea da.
- **Konponketak**
  - Alde Zaharrean konponketa txikiak egiteko enpresa bat kontratatuko da.
- **Garbitasuna**
  - Kale-garbitzaileei eskatuko zaie garbitzeko Alde Zaharreko kaleak sanjoanak baino lehen.
  - Inauterietan, nabaritu egin da komun gehiago jarri direla, eskertu dute. Egia da bete egin zirela; datorren urtean maizago hustu beharko dira.
  - Alde Zaharrean, komun publiko finkoak egotea eskatu dute.
- **Argiteriaren azterketa**
  - Enpresak izandako ezusteko batengatik, azterketa udazkenera atzeratu beharko da, orain oso berandu iluntzen baitu.
- **Kableatuak**
  - Fatxadetatik zintzilik dauden kableak jasotzeko eta txukuntzeko, dirulaguntzetan eskaera egin dezakete komunitateek.

- **Segurtasuna**

- Auzotarrek ikusten dute Alde Zaharrea gertatzen ari dena modu orokorrean landu eta soluzionatu behar dela.
- Auzoko etxebizitzak ez daude oso egoera onean, eta horrek hainbat ondorio zuzen ditu auzoko giroan. Aurreikusten da Plan Estrategiko Orokorrean asko landu behar den gaia izango dela etxebizitza.
- Auzoa biziberritu nahi dute, jende gaztea bizitzera etortzea nahi dute, komertzioak irekiak mantentzea eta abar.
- Etxebizitza-arkitekto bat hasi da udaletxean lanean.

**5. Itxiera.**

- Hurrengo urratsei buruzko azalpena, Josune Sanz, Komunitatea eta Gobernantzako zinegotziak emana:

- Eskaerak jasoko dira eta dagokien zerbitzuetara bideratuko dira.
- Hurrengo bilera, bestelako beharrik sortu ezean, urtearen amaieran egingo da, gaien aurrerapenaren jarraipena egiteko eta 2026ko aurrekontu-urteari begira egin daitezkeen jarduerak proiektatzeko.

- Parte-hartzaileei esker ona adierazi, eta bilkurari amaiera eman zaio.